



**Udal aldizkaria**

**2016ko ekaina. 3. alea**

Lege-gordailua: DL NA 2406-2015

## **AURKIBIDEA**

**UDALA 2**

**JAIK 3**

**MENDIA 4**

**UDALA 5**

**HIRIGINTZA 6**

**KULTURA 7**

**MOTX-MOTXEAN 8**

**HURRENGO HITZORDUAK 8**

“Plazako obrak direla eta aurten ez da zezenik izango jaietan” / 3

# **ONARTU DIRA 2016KO AURREKONTUAK**

1.027.966,50 euroko aurrekontua da aurtengoa / 5



Goizuetako Udala



IZASTA ETA IZATGA

## ESKERRIK ASKO, JOSE RAMON!

Maiatzaren 31an jubilatzen zen Jose Ramon udal langilea. 16 urte eman ditu udalarentzat lanean eta guk, elkarrizketa egin diogu urte hauetan izan duen esperientzia gurekin konpartitzeko.

### Zer moduzko esperientzia izandu da?

Esperientzia ona. Lana asko aldatu da, e! Len mendin lan gehio itten giñun, arbolak mozten... ta azkeneko urtek herriko lanatan gehio eman ttu. Biño ni beti gustora. Udaletxan aldetik iñoiz ez tut kejik izandu...

Denan gustoa itten saiatu naiz. Biño zaila da!



Jose Ramon Zubiri.

### Zein izandu da oroitzen tzan lanik gorrana?

Ni pertsona gorra naiz ta lan gorrik ezta izandu! Umetatik mendin lanen ibilia naiz... Fiestatan e lan haundia izaten da: mangera pasatu yendea gaupasaz dola... Biño gosari erra itten giñun ta...

### Ze man dizo zuri, pertsona bezala, udalen lanen aitzek?

Len ikasitakoa hobetzen, monterokin, kubikazioa ta holoko gauzari buruz. Len modu batera itten zen lana ta oain difente itten da: materiala aldatu da, seguridadeko kontrol gehio do...

### Ze egoeran ikusten tzo udala? Ta etorkizuna?

Gastuk lengo alderen askoz gehio daude. Sarrera berriz gutxio... Len mendi asko zon. Biño hori ya bukatu da. Mendin egoera zaila da: txarra gailentzen da ta ona kutsatu.

Herrin, itxetan, familitan, gaztek e diru gutxio dute... Len herrin fabrikak bazauden ta bertan lan gehio itteko aukera zon. Uan berriz, al dunak al dun lekura yon bar izaten do!

### Ze ingo zo oain?

Lasai ta gustora hartu nahi dut jubilarzioa. Lo gehio in, baratza, baserria berritzen... Geldik ez naiz eoin. Deus in gabe ez biño lasaio. Osasuna da eskatzen duana.

**Egin duen lan guztiagatik behin baino gehiagotan eskerrak eman badizkiogu ere, hemendik eta beste behin ere ESKERRIK ASKO! esan nahi diogu, egindako lanagatik eta Zubi-Ondo tabernan gonbidatu zigun hamaiketakoagatik!**

Behin-behineko lan kontratazio bat egitea aurreikusten dugu. Lan baldintzak zehaztean argitaratuko ditugu.

**“Ibai Zugarramurdiri ere ekainaren 15ean bukatu zitzaion “Gazte Bermea” Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzaren bidez egindako kontratua.”**



Ekainaren 4ko hamaiketakoa.

## AURTEN ZEZENIK EZ!

**Plazako obrak direla eta, aurten ez da zezenik izango jaietan.**

Plazako lur zolaketa lanak egiteko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzeko, ezin zen jaiak pasa arte itxaron eta obrek hiru hilabete inguru irautea aurreikusten denez, ez zegoen beste aukerarik.

Erabakia hartzea ez da erraza izan. Baina erabaki zuzenena izan da, ezin baikenuen ziurtatu jaietarako obrak bukatuak egotea eta zezenak egin ahal izateko barrerak behar bezala egotea. Gainera, segurtasun neurriak geroz eta zorrotzagoak dira eta hein handi batean, arriskatzea ere izan zitekeen lanak presaka egitea.

Jakitun gara herrian aspaldiko ohitura dela zezenak egitea, eta harrera ona

izaten dutela. Baina aurtengo jaiak zezenik gabe probatu beharko ditugu.

Aipatu nahi genuke, zezenetako diru kantitatea beste ekintza batzuetan inbertituko dela, eta horrek, egitarauko ekitaldiak indartsuak izateko aukera ematen duela.

Hainbat ekintza aipatzearen: umeen egunean trialsin ikuskizun berezia egingo da; abuztuaren 14ko txupinazoa indartzeko, erraldoien topaketa egingo da; 15 arratsaldean, bi ekitaldi egingo dira, herri kirolak eta bertsolariak; 17an Nafarroako jotez gozatzeko aukera izango dugu; eta 18 iluntzean Zo-zongo batukadak alaituko ditu kaleak.



Lasturren zezenak herriko jaietan.

### GALDEKETA

Jaiak igarotzen direnean, iraila inguruan, galdeketa bat zabaldu nahi du udalak herritarren jaien inguruko balorazioa jakiteko. Azken finean, urteko aurrekontuaren 38.000 euro bertan gastatzen dira eta jaietako ekitaldiak antolatzerakoan herritarren gustoa eta nahiak zein diren jakitea beharrezkoa ikusten du udalak. Horrela, datozen urteei begira herritarren erantzunen datuak izango ditu eskuartean ekitaldi mota bat edo beste bat aukeratzeko garaian.

## IRALEKUEN HITZARMENA

Iralekuen hitzarmena egiteko informazio bilketa egiten hasi da udala. Horretarako, hitzarmena egiteko adostasuna adierazi zuten herritarrei deitzen gabiltza banaka-banaka. Bileren hauen helburua, eskriturretan jasotako terrenoak identifikatu eta partikularrak jabetzan zein terreno hartu nahi dituen identifikatzea da. Informazio hau jaso ondoren, Nafarroako Gobernura bidaliko dugu hauek hitzarmen proposamenak egin ditzaten ondoren udalak eta gobernua onartu ditzaten.

Adierazi, partikularrak udalarekin biltzeko ordenak ez duela garrantziarik eta berdintasunez jokatzeko saiaturako garaian.

Ekaina erdian hasi ziren udala eta partikularren arteko bilerak eta lan mardula denez, deitu arte lasai egotea eskatzen zaie interesatuei.



## NEKAZARITZA POLITIKA ERKIDEA (PAC)

Maiatzaren 31ko batzarrean PAC-arekin erlazionaturako Goizuetako Udalaren herri lurretako larreen aprobetxamendua zeini eman behin betiko onartu zen. 58 herritar izan dira lurzatiaren bat jaso dutenak.

## AUDITORIA AZTERKETAK

Azken hilabeteetan Goizuetako mendiek bi auditoria jaso dituzte: PEFC eta FSC. Auditoria baten helburua irizpide desberdinen arabera, mendiaren kudeaketa jasagarria egiten ote den aztertzea da. Bi auditorien emaitzek "bikain" eman dute nahiz eta beti dauden hobetzeko puntuak.

## 2016KO AURREKONTUA

Goizuetako Udalak maiatzeko batzarrean onartu zituen 2016ko udal aurrekontuak. **1.027.966,50 euroko aurrekontua da aurtengoa.**

la urte erdia pasata onartu ditu aurrekontuak, diru sarrerak murriztu izanak zailtasunak eragin baititu aurrekontua ixteko, izan ere, udalaren sustengu nagusian aldaketa nabarmenak izan dituzte: mendi ustiapenean 300.000 euroko irabaziak izatetik 60.000 eurokoak izatera jaitsi baita aurtengoa.


Bestalde, partikularrek aurreko urteetan baino mendi gehiago atera dituztenez, mendi pisten erabileragatik ezarritako zergaren kontzeptupean aurreko urtean 2.000 euroko diru bilketa egitea espero zena, orain, 29.000 eurokoa da. Zerga ez bada igo ere, partikularrek mendi gehiago atera dituztenez, bilketa handiagoa izatea aurreikus-ten du Udalak.

Sarreraren jaitsiera bai, baina zorrik ez du Udalak eta zenbait urtez aurreztutako dirua ere badu: 1.700.000 euro. Aurrekontuak itxi ahal izateko inbertsio bat aurrekontuan jaso gabe utzi dute (mendi inbertsioetarako 300.000euro) eta behin behin-betikoz onartuta dagoenean aurrekontu-aldaketa egingo dute, aurreztutako dirutik finantzatuko dena.

Beste inbertsio potoloa plazako lur zolaketena da, 318.450 euro. Baina gastutik, 55.450 euro besterik ez ditu jarriko udalak, bestea Nafar Gobernuak diruz-lagundua egongo baita.

Egingo den beste inbertsioa Tifanixoko teilatua eta lau paretak berritzea izango da (67.000 euro) eta herritarren eskakizunei erantzuten dioten inbertsio txikiak ere badaude. Horietako batzuk urte bukaeran egin zen herri batzarrean proposaturakoak: Gimnasioaren konponketa eta bidegorrian hesia jartzea, besteak beste.

1.027.966,50 EUROEN BANAKETA ATALKA







Goian, ezkerrean, Mertxeneko iturria; behean, ezkerrean, bide gorriko hesia; eta eskuinean, Goiko-Iturriko pasabidea.



## HERRIA TXUKUNTZEN...

Azken hilabeteetan hainbat obra egin dira herrian. Horien artean aipagarrienak Mertxeneko iturriko berritze lanak, bide gorrian hesia jartzea eta Goiko Iturriko pasabidea berritzea dira.

Turismo Batzordeak egin zuen planean zehaztu bezala, Mertxeneko iturria berritu da. Zabala eta Goikoetxea eraikuntza enpresak egin du lana 1.375€-tan. Beste bi lanak herriko langileek egindako hobekuntzak dira. Alde batetik, bide gorrian hesia jartzea, eta bestetik, Goiko Iturriko pasabidea egitea. Bide gorriko hesia zati batean egin da momentuz. Baina urtea bukatu baino lehen, falta den zatia egitea aurreikusten da. Orain arte egindakoa 1.765€ kosta da (materiala), esan bezala udal langileek egin baitute eskulana eta falta den zatiak 800€-ko aurrekontua izango luke. Herriar batek baino gehiagok eskatzen zuena zela ikusita egin da berrikuntza hau. Goiko Iturriko pasabidea ere udal langileek egin da eta 50€ kosta da materiala.

Aipatu bezala, hiru obretatik bi, udal langileak eginak dira. Udaletik, obra txikiak gure langileek egiteko aukera ikusten da, modu honetara eskulana behintzat aurrezten delako. Horregatik, etorkizunera begira inbertsio ona izango delakoan, masadora bat erosi da 1.200€ ordainduz.



**Xapo:** Maiatza erdialdean argitaratu zen Kultur Taldeak egiten duen Xapo urtekaria. 15. alea aurtengoa. Batez ere, garrantzia eman nahi izan diote urteurrena betetzen duten herriko eragileei: koruak 10 urte, suhiltzailerek 20 eta Gazte Asanbladak 25. Udaletik eskertu nahi diegu herriari ematen dioten zerbitzua eta eskaintza.

**“Euskaraz gara” dokumentala:** Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzuak dokumentala egin du eskualdeko herritarrek euskara eta euskararen egoera nola ikusten duten aztertzeko. Interneten ikusi daiteke youtuben “Euskaraz gara” idatzita.

**Goizutrail:** Aurtengoa ere arrakasta izan du Goizutrail mendi lasterketak. 197 izen emate, horietatik 14 herritarrek, 80 bolondres inguru... Ekitaldia indartsu dagoela argi gelditu zen. Eskerrak berriz ere antolakuntza eta bolondres lanetan lagundu zuten eragile eta herritar guztiei.

**Ni Urumea:** Labrit multimedialak egindako dokumentala da. Urumea ibaiari protagonismoa ematen dio, ez bakarrik naturaren eta hirigintza gatazken ikuspuntutik, baita gizakion harremanen alorretik ere. Nahi duenarentzat udalean daude eskuragarri dvd-ak. 100 ale daude eta doainik banatuko dira.

**UEMA eguna:** “Euskara hauspotzen” lemarekin Uemaren sorreraren 25. urteurrena ospatu zen Leitzan maiatzaren 28an. Egun osoan zehar, jaigiro ederra izateaz gain, goizean batzar nagusia egin zuten udaletako ordezkariak eta hiru herri gehiago sartu ziren Uemaren barruan. Guztira, 76 udal daude egun.

**Asteroko washappak:** Arnasguneen taldearen esku-tik, washapp dinamika izan dugu martxan hainbat hilabetez. Helburua, Goizueta herriari buruz ezagutzak handitzea zen, non gure herriaren inguruko hitz, datu eta txoko ezberdinak ezagutzeko aukera eman digun. Herriarren artean, interesa eta eztabaida piztu du.

**Antzerkia:** Nafarroako Gobernuak antolatuta, Zirika-Zirkus taldearen “Azken tren” emanaldia ikusteko aukera izan genuen ekainaren 5ean. Eguraldiak lagunduta, 100 herritar inguru bildu ginen plazan eta momentu atsegina pasatu genuen.



# MOTX-MOTXEAN

## GOIZUKOOP KOOPERATIBA

Urratsez-urrats, kooperatiba bidez gasolindegia martxan jartzeko egitasmoa aurrera doa. 175 bazkidek osatzen dute kooperatiba eta herritarren aldetik izan duen babesa eta arrakasta ikusita, udalak ere bere ekarpena egin du Asinkon duen lurzattia utziz. Herriari irabazi asmorik gabeko zerbitzua eskaintzearen truke izan da zesioa.



## NAFARROAN ETB IKUSTEAREN ALDEKO MOZIOA

Maiatzeko osoko bilkuran onartu zen mozioak ETB Nafarroan multiplex bidez emititzeko urratsak eman ditzala eskatzen dio Espainiako Gobernuari. Nafarroako Gobernuari, berriz, ETBren kanalak legez eta normaltasunez jaso ahal izateko marko legal egoki eta egonkor bat ezartzea eskatzen dio, beharrezkoak diren bitarteko teknikoak jarritz.



## BUTHANTXO PROIEKTUA

Gizarte Zerbitzuak Bhutantxo proiektua jarri du martxan. Proiektua Bhutan herrialdean oinarritua dago eta bertan, zorientasunaren indize gordina erabiltzen dute beraien garapena neurtzeko. Proiektu honen bidez, herriko jendearen harremanak babestu eta hobetu nahi dira espazio guztietan. Lehenengo pausua eskolan eman da eta ekainaren 21eko zaintzen ginkanarekin bukatu zen.



## SUHILTZAILEEN HITZARMENA BERRITU DA

Goizuetako udalak eta beste sei udalek suhiltzaile boluntarioen hitzarmena berritu dute Nafarroako Gobernuarekin. Maiatzaren 18an sinatu zuten Iruñean Mari Jose Beaumont kontseilariak eta Agoitz, Bera, Goizueta, Isaba, Leitza, Lesaka eta Luzaideko udal ordezkariak.



## HURRENGO HITZORDUAK

**2016-07-02** 11:00. HERRI BATZARRA. Eskolako jantokia.

**2016-07-02/03** UMORE ONA ELKARTEAREN EGUNA.

**2016-07-15** KARMEN BEZPERA. Afarria eta sua. Plaza.

**2016-08-07** UMEEN EGUNA. Herriko jaien barruan.

**2016-08-13/18** HERRIKO JAIK.

**2016-08-28** ARTIKUTZAKO JAIK. San Agustin eguna.

**2016-10-02** KILOMETROAK. Bergara.

**2016-10-16** NAFARROA OINEZ. Viana-Lodosa.